# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriak 31**

**Vitoria-Gasteiz, 31 de octubre de 2017**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lehendakaritza**

## GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU BEKEN DEIALDIA KANPOKO EUSKAL GIZATALDE ETA ETXEEN EREMUAN

2017ko urriaren 31ko Gobernu Kontseiluak onartu du Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren Ebazpena, kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan espezializatzeko 4 beken deialdia egiten duena.

Onarpen horren ondorioz, 12 hilabeteko iraupena duten 4 beken deialdia egingo da. Beken onoradunek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren honako bulego hauetan burutuko dituzte beraien eginkizunak:

- Bik, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- Batek, Euskadiren Argentinako Ordezkaritzan (Mercosur).
- Batek, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan.

Lau beken diru-kopuru osoa 80.000 eurokoa da, honela banatuta:

- Vitoria-Gasteizen burutu beharreko beka bakoitzak 16.000 euroko diru-kopurua izango du.
- Euskadiren Argentinako Ordezkaritzan (Mercosur) eta Estatu Batuetako Ordezkaritzan burutu beharreko beka bakoitzak 24.000 euroko diru-kopurua izango du.

Interesdunek, eskatutako baldintzak betetzen badituzte, aurrez aurreko bitartekoak edo bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte hautaketa prozedura honetako izapide guztiak eskatzeko, kontsultatzeko edo gauzatzeko.

# EUSKO JAURLARITZAK ETA INNOBASQUEK *"EUSKADIKO DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO LIBURU ZURIA"* ZABALTZEKO BIGARREN FASEA HASI DUTE

- **Bi erakundeek lankidetza-hitzarmena sinatu dute 2020ra arte, *Gobernantza Ona*ren balio nagusiak ezartzeko: gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta publizitate aktiboa**
- ***"Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria"* Euskadin administrazio publiko batek herritarrekin lankidetzan osorik prestatutako horrelako lehen liburu zuria da**

Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio lankidetza-hitzarmena sinatuko duela Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin, *"Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria"*ren zabalkundearen 2020ra arteko bigarren fasea gauzatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, Innobasquek, gizarte-berrikuntzaren arloan, esperientzia nahikoa du eta beharrezko baliabide materialak dokumentuan jaso diren konpromisoak ezartzeko erronkari ekiteko eta, horrela, eraginkortasunez erantzuteko herritarrek liburu zuri hau sortzeko prozesuan zehaztu zituzten eskariei.

Jaurlaritzaren azken helburua lan honekin da *Gobernantza Ona*ren balioekiko konpromisoan aurrera egitea: gardentasuna, herritarren parte-hartzea erabakiak hartzean, publizitate aktiboa, kontu-ematea, etab.

## LANKIDETZA HITZARMENA

Hitzarmen honen bidez, Eusko Jaurlaritzak eta Innobasquek estrategikoki jardun ahalko dute lankidetzan eta partekatu berrikuntza publikoko eta pribatuko espazioak eta teknikarien taldeak, herritarrek parte hartzeko esperientzia berritzaileak prestatzeko. Hura sinatuta, bi erakundeek konpromisoa hartuko dute honako zortzi lan-ildo hauek gauzatzeko:

1. **Eduki berriak garatzea**, *"Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria"*n sartzeko.
2. Eusko Jaurlaritzako zuzendari eta teknikariak **sentsibilizatzea eta prestatzea**, herritarrek parte hartzeko arloan.
3. Herritarrek parte hartzeko prozesuen diseinuaren eta abiaraztearen inguruan **orientatzen duten tresnak garatzea.**
4. **Parte hartzeko esperientzia berritzaileak sustatzea**, Gobernuak garatu beharko dituenak, dagoeneko zabaldu diren prozesu parte-hartzaileen aholkularitzaren eta ebaluazioaren bidez.

5. **Esperientzia berritzaileak sustatzea**, zenbait ekimenen bidez, besteak beste, "Elkarlan Sariak".
6. **Jardunbide egokien dokumentua eguneratzea**, prozesu horiek toki-mailan abian jartzeko tresna erabilgarri guztiak jasotzen dituena.
7. **Ebaluazio-eredua ezartzea**, parte-hartze prozesu horien eragina egiaztatzeko aukera emango duena.
8. Gobernuari **laguntza ematea** "Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plana" prestatzeko martxan jarri den herritarrek parte hartzeko prozesuan, eta jardunbide egokiak zabaltzeko **sareak sustatzea**, euskal erakundeen artean partekatzeko.

Dokumentua sinatzen denean, "Jarraipen Batzorde" batek -alde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute- zortzi lan-ildo horiek garatzeko hartu dituzten konpromisoak betetzen direla bermatuko du.

**LIBURU ZURIA**

*"Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria"* Euskadin administrazio publiko batek prestatutako horrelako lehen liburu zuria da. Dokumentu hori urtebetez egin zen. Bertan, 400 pertsonak eta mota guztietako 150 erakundek parte hartu zuten: udalak, aldundiak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, adinekoen elkarteak, kultura-elkarteak, unibertsitateak, ikastetxeak, GKEak, gizarteratzeko elkarteak…

Liburu hori euskal administrazio publikoaren eta herritarren artean elkarrizketarako, negoziaziorako eta akordiorako etengabeko mekanismoak sortzeko tresna bilakatu da, herritarrek zuzenean berengan eragina duten erabakietan esku hartu ahal izateko.

**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

# EUSKO JAURLARITZAK BASQUE TRADE AND INVEST/EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE AGENTZIA SORTUKO DU ENPRESEI BALIO ERANTSI HANDIAGOKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO

- **Basque Trade Invest-ENAk enpresak Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotzeko politika guztiak kudeatuko ditu**
- **Euskadiko ekonomia eta enpresak nazioartekotzea sustatuko du, eta eragile eskudunei atzerriko inbertsioak erakartzen lagunduko die**
- **Egitura egokiagoa da nazioarteko kideko eragileekin konektatzeko, euskal enpresei zerbitzu eraginkorragoa eskainiko die eta atzerrian "Basque Country" marka sendotuko du**
- **Spriren Kanpo Sareko merkataritza-bulegoak Agentzia berriaren mende geratuko dira, eta Adimen Lehiakorreko Unitate bat hartuko du bere baitan**

Gobernu Kontseiluak Basque Trade and Investment/Euskadiko Nazioartekotze Agentzia SA sozietate publikoa eratzeko dekretua onartu du.

Agentzia honen helburua da Eusko Jaurlaritzak nazioartekotzearen arloan dituen ahalmenak eta aktiboak integratu eta sendotzea.

Eusko Jaurlaritzaren ustez nazioartekotzearen arloan erakunde bakarra izateak erraztu egingo du balio erantsiko zerbitzu-eredu batera egiteko bidea, horrekin herrialde gisa eta enpresen jarduerari eta inbertsioak erakartzeari begira emaitzak hobetuta.

Basque Trade and Invest/ENAren xede soziala izango da, beraz, Euskadiko ekonomia eta enpresak nazioartekotzea sustatzea, eta, horretarako, enpresei nazioartera hedatzen eta eragile eskudunei kanpoko inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegora erakartzen lagunduko die.

Aurreikusten da balio erantsiko zerbitzuen kartera berria hedatzea, enpresa-profil ezberdinentzat segmentutan banatua, gaitasun propioak eta eragile laguntzaileenak bateratuko dituen eredu integral baten bidez.
Kanpoko bulego-sarea

Helburu horiek betetzeko, bulego-sare bat izango du atzerrian, euskal enpresen eta erakundeen zerbitzura jarrita sarearen lankidetza eta ekarpena areagotzeko.

Gaur egun Spriren Kanpo Sarea 14 bulegok osatzen dute eta aurrerantzean Agentzia berri honen mende geratuko dira.

## Adimen Lehiakorreko Unitatea

Agentziak Adimen Lehiakorreko Unitate bat izango du, merkatuen ezagutza aurreratua sortuko duena enpresei aukera berriak eskaintzeko. Adimen Lehiakorreko Unitateak merkatuen joerak aztertuko ditu, aukera berriak hauteman eta kudeatuko ditu, bertako politikak ebaluatu eta kanpoko politikak miatuko ditu, eta nazioartekotzearen arloan ezagutza-aliantzak eratzea sustatuko du euskal ekonomiari eta enpresei laguntzeko.

## Giza kapitala, “Basque Country” marka eta erakundeen arteko koordinazioa

Orain arteko politikekin jarraitutako bidearen ildo beretik, BTI/ENAk bere gain hartuko du giza kapitala prestatzeko programen kudeaketa, eta enpresak nazioartekotzeko gaikuntza espezializatua eskainiko du.

Euskadik eta bertako enpresek munduan errekonozimendu handiagoa izateko eta errekonozimendu hori zabaltzeko egingo du lan Agentziak, Nazioartekotze Agentziaren jarduera “Basque Country” markarekin lotuko du eta alderantzizko misio ekonomiko eta enpresarialak sendotuko ditu.

Garrantzizko eragilea izango da Nazioartekotzearen Euskal Sisteman, eta etengabe koordinatuta jardungo du Basque Consortium-Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua osatzen duten erakundeekin.

## BTI/ENA agentziaren kudeaketa-erregimena

BTI/ENA, Basque Trade and Investement/Euskadiko Nazioartekotze Agentzia SA sozietate publikoa, sozietate publikoei aplikagarriak zaizkien xedapenek eta Kapital Sozietateei buruzko legerian xedatutakoak arautuko dute.

Agentziaren jarduera 2018ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta pixkaka hartuko ditu bere baitan Euskadiko Administrazio Orokorraren eta Spri-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatearen giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak. Prozesua 2018ko martxorako amaituta egotea aurreikusten da.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### 1,8 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO ARRANTZAREN SEKTOREAREN GARAPEN LOKAL PARTEHARTZAILERAKO ESTRATEGIAKO PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO

- **Laguntzek hazkuntza ekonomikoa, gizarteratzea, enplegu sorrera eta lan mugikortasuna eragin behar dute, bai itsasbazterreko zonaldeetan bai arrantzaren eta akuikulturaren menpe dauden barrualdeko zonaldeetan**

Exekutibo autonomoak Itsas Garapen Elkartea Tokiko Ekintza Taldeari onartutako Garapen Lokal Partehartzailerako Estrategien barruan gauzatzen diren proiektuetarako laguntzak iragarri ditu Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretarkao sailburuak agindu bidez, eta agindu hori onartu du Eusko Jaurlaritzak. Finantzatuko dira itsasbazterreko zonaldeetan zein arrantzaren eta akuikulturaren menpe dauden barrualdeko zonaldeetan hazkuntza ekonomikoa, gizarteratzea, enplegu sorrera eta lan mugikortasuna eragitea bilatzen duten proiektuak.

2017an, 1.835.000,00 euro bideratuko dira, guztira, laguntza programa hori finantzatzera. Diru horretatik, 1.559.750 euro Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsak (FEMP) finantzatuko ditu eta 275.250 euro, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretatik etorriko dira. Era berean, 335.000 euro 2017ko ordainketa kredituak dira eta 1.500.000,00 euro 2018rako konpromiso kredituak.

**Laguntza bideak**

Hauek izango dira laguntza bideak eta laguntzen urteroko banaketa:

| Laguntza bideak | 2017 (€) | 2018 (€) | Guztira (€) |
|---|---|---|---|
| Ekoizpenean inbertitzeko laguntzak | 236.500 | 1.263.500 | 1.500.000 |
| Enplegua sortzeko laguntzak | 67.500 | 67.500 | 135.000 |
| Ekoizpena ez den alderdietan inbertitzeko laguntzak | 31.000 | 169.000 | 200.000 |
| Guztira | 335.000 | 1.500.000 | 1.835.000 |

**Onuradunak**

Ekoizpenean inbertitzeko proiektuetan, onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, nortasun juridikoa eduki zein ez. Pertsona juridikoak mikroenpresak, enpresa txiki eta enpresa ertainak izan beharko dira.

Enplegua sortzeko proiektuetan, onuradunak izan daitezke mikroenpresak, enpresa txikiak eta enpresa ertainak, bai eta enpresa izaera eskuratuko duten pertsona fisikoak ere.

Ekoizpena ez den alderdietan inbertitzeko proiektuetan, onuradunak izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko agenteak, hala nola arrantzaleen kofradiak, arrantza sektoreko profesionalen elkarteak, ekoizleen erakundeak, soilik arrantzaleen kofradiek edota arrantza sektoreko elkarteek eratutako irabazi asmorik gabeko erakundeak, eta Arrantzako Tokiko Ekintza Taldeak. Onuradunak izan daitezke, halaber, beren helburuen artean jarduera nautikoak sustatu, lurraldeko arrantza produktuak bultzatu, itsasoko ingurumena sustatu edo itsasoko eta arrantzaren kultur ondarea bultzatzeko asmoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak, irabazi asmorik gabekoak izan zein ez.

Eskaerak egiteko epea hamabost egunekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Dokumentazioa “Itsas Garapen Elkartea” Tokiko Ekintza Taldearen lokaletan aurkeztu behar da.

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

## Ogasuna eta Ekonomia

### JAURLARITZAK BEGOÑA ARROITAJAUREGI JAIO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAREN TITULAR IZENDATU DU

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titular Begoña Arroitajauregi Jaio andrea eta ordezko Francisco Javier Elola del Río jauna izendatzen dituen Dekretua, aurreko titularra izendatu zenetik 6 urteko epea amaitu ondoren.

Izendapena Gobernu Kontseiluan onartutako dekretu bidez egin da, Ogasun eta Ekonomia Saileko eta Herri Administrazio eta Justizia Saileko titularrek batera eta arrazoituta proposatu ondoren.

Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren helburua da kontratazio-alorreko errekurtso bereziak, erreklamazioak eta deuseztasun-auziak ebaztea, baldin eta botere esleitzaileetatik eratortzen badira eta beren eskumenekoak diren kontratuei badagozkie. Botere esleitzaile horiek ez dute nahitaez administrazio publiko izan behar, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta horren lurraldeko tokiko administrazioen sektore publikoetan integratuta egon beharko dute (hiru foru-aldundiak alde batera utzita), horri esker irizpide bakar eta homogeneoak ezarri ahalko baitira kontratazio publikoari dagokionez aipatutako administrazioen esparru osoan.

2011n sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa organo espezializatua da, bere eskumenen gauzatzean beregaintasun funtzional osoz dihardu, eta, Administrazioaren egitura hierarkikoan sartu gabe, kontratazio publikoaren arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaio.

Organoak objektibotasunez eta inpartzialtasunez betetzen du bere eginkizuna, inolako lotura hierarkikori atxiki gabe eta erasandako herri-administrazioetako organoetatik inolako jarraibiderik jaso gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa, hasiera batean, kide bakarreko izaeraz sortu bada ere, arauzko xedapen bidez kide anitzeko organoan eraldatzea aurreikusi da.

## Ogasuna eta Ekonomia

### GOBERNU KONTSEILUAK BILBOKO JOSE MARIA OLABARRI KALEKO 1 ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINA ALOKATZEKO BAIMENA EMAN DU

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Bilboko Burtsaren Artezkaritza Sozietateari Bilboko Jose Maria Olabarri kaleko 1 zenbakian dagoen higiezina zuzenean alokatzeko. Eraikin hori EAEk 1989an erosi zuen, eta Bilboko Burtsaren Artezkaritza Sozietatearen egoitza izan da 1991tik.

Bilboko Burtsak eskaintzen duen zerbitzu publikoaren funtzioa eta ondasunaren eta eragiketaren berezitasuna direla eta, alokairua zuzenean esleitzea erabaki da; hori dela eta, Gobernu Kontseiluak eman behar du eragiketa horretarako baimena.

Errentamenduaren baldintzak direla eta, eraikin osoa ematen da errentan, altzariak barne, 4. solairua izan ezik, 84.493,70€-an gehi dagokion BEZa urtean, eta 5 urteko hasierako aldia gehi luzapen posibleak, harik eta, guztira, 10 urte bete arte.

### HASI DA DONOSTIAKO PRIM KALEKO 10 ZENBAKIKO ERAIKINA SALTZEKO PROZESUA

Eusko Jaurlaritzak onetsi du Donostiako Prim kaleko 10 zenbakian dagoen eraikina enkante publikoaren bidez besterentzeko espedientea. Besterentzea Eusko Legebiltzarrak onetsi zuen, 2017ko ekainaren 28an Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hartutako erabakiaren bidez, 3 milioi eurotik gorako balioa duen ondasuna baita.

Enkanterako ezarri den lizitazio-tasa edo oinarri den prezioa 7.006.955,00€ da; zenbateko hori gorantz hobetu beharko da. Onetsi diren pleguetan eskaintzak aurkezteko epea 2017ko abenduaren 5ean amaitzen dela ezartzen da, eta proposamenak 2017ko abenduaren 21ean irekiko dira.

Eraikin horren jabetza Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialen likidaziotik dator, eta ez da erabiltzen 2011tik; beraz, Gobernuari alferrikako gastua eragiten dio.

## Hezkuntza

**6 MILIOI UDALENTZAKO DIRU-LAGUNTZATAN, IKASTETXEETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO (UDALAGUNTZA-2017)**

- **Udalaguntza deialdiaren bidez 298 obra finantzatu ziren iaz, udal titulartasuneko eraikinetan kokaturik dauden 167 ikastetxetan**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez onartu du, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabegoko eraikinetan obrak egitera bideratutako gastuak finantzatzeko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Udalaguntza-2017 izenez ezagutzen den deialdi honek 6 milioi euroko diru-kopurua du.

Udalaguntza-2017 deialdian parte hartu ahal izango dute aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeen titular izan eta haietan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Agindu honen bidez finantzatu ahal diren obrak 2017ko urtarrilaren 1 eta 2018ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharko dira eta 2018ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuak egon behar dute.

Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez emango duen diru-laguntza balorazio-batzordeak onarturiko aurrekontuaren %60koa izango da. Eskaera bakoitzeko gehienezko kopurua, dena den, 360.000 eurokoa izango da. Hortaz, balorazio-batzordeak onartutako 600.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten eskaerei diru-laguntza ematen bazaie, muga hori hartuko da kontuan.

### Irisgarritasun lanak

Ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko lanak izan ohi dira sarritan, edo baita eraikin horien instalazioak eguneratu edo egokitzeko lanak ere, hala nola: kanpo nahiz barne arotzeria aldatzea; fatxada eraberritzea; patio eta jolastokietan zorua berritzea; eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketak; espazioak birbanatzea; teilatu konponketak; instalazio elektrikoak eguneratzea; komunak eta saneamenduak konpontzea; edo berogailu sistema aldatzea, beste hamaika motatako lanekin batera. Guztiak ere irakaskuntzaren kalitatean modu zuzen zuzenean eragiten duten jarduerak izan ohi dira.

Udalaguntza deialdiaren sorrera, ikastetxeen instalazioetan hobekuntza eta eguneratze lanak burutzeko Hezkuntza Sailaren eta tokiko korporazioen arteko koordinazioan aurkitzen da. Elkarlan horri esker, gainera, baliabide publikoen optimizazioa eta administrazio bakoitzak egiten dituen ahalegin eta jarduketen eraginkortasun handiagoa ere lortzen dira.

2017ko Udalaguntza deialdian parte hartu nahi duten udalek hilabeteko epea izango dute proiektuak aurkezteko –eskatzen den dokumentazioarekin batera-, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Iazko Udalaguntza deialdiaren bidez (Udalaguntza 2016) 298 obra finantzatu zituen Hezkuntza Sailak, Euskadiko 99 udalerritan kokaturiko Haur eta Lehen Hezkuntzako 167 ikastetxe publikotan.

## Hezkuntza

### 350.000 EURO IKASTETXEETAN ANIZTASUNA LAGUNTZEKO BERARIAZKO PROGRAMATARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2017-2018 ikasturtean aniztasuna laguntzeko berariazko programak garatzeko ohiz kanpoko diru-laguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du.

Deialdi honen helburua da, aniztasuna laguntzeko berariazko programak atondu, zuzendu eta kudeatzeko burutzen diren jarduerak diruz laguntzea. Jarduera horiek, ikastetxeetan ikasleen arteko kultura aniztasunari erantzuna emateko neurriak izan beharko dituzte. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduera horien artean lekua izango dute irakasleen prestakuntzara zuzentzen direnek, eta baita ikasleekin garatzeko sortutakoek ere (irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu inklusiborako metodologia eta estrategiak abian jartzea, tutoretzarekin loturiko ekintzak, atzerriko jatorria duten ikasleei harrera egiteko jarduerak, edo hizkuntza indartzeko irakasleekin ekintzak).

Deialdi honetara bideraturiko diru-kopurua, honela banatzen da: 200.000 euro Haur eta Lehen Hezkuntzarako, eta 150.000 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketarako.

Deialdi hau aniztasunari arreta emateko indarrean dauden beste hainbat deialdiren osagarri da, hala nola: kulturartekotasuna dinamizatzeko programak, hizkuntza indartzeko programak, Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Programak, eta Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak.

## Osasuna

**EUSKO JAURLARITZAK % 50ETIK GORA AREAGOTU DITU OSASUNAREN ARLOKO IKERKETA PROIEKTUETARAKO 2017RAKO LAGUNTZAK**

Jon Darpón Osasuneko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio gaur 1,4 milioi euro areagotu direla Eusko Jaurlaritzak 2017rako zuzendutako laguntzak osasunaren arloko ikerketa-proiektuak finantzatzeko. Hala, aurten, 4 milioi eurokoa da 2020ko Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategian, eta 2020 Zientzia eta Teknologia Planean eta RIS3 Euskadi Espezializazio Adimenduneko Estrategian jasotako laguntza horien kopurua.

Orain baliabide ekonomikoak zabaltzen zaizkion deialdia uztailaren 13ko EHAAn argitaratutako 2017ko ekainaren 20ko Aginduari dagokio —osasunaren arloko ikerketa-proiektuen finantzaketa arautzen duenari—. Horren zuzkidura 2,6 milioi eurokoa zen.

Osasunaren arloko ikerketa-proiektuen finantzaketak lehentasunezko bi helburu hauek ditu: herritarren osasuna hobetzera eta aberastasuna sortzera bideratutako I+G+b-ko jardueren inpaktua gehitzea; eta osasunaren arloko ikerketaren eta berrikuntzaren finantzaketa hobetzea, barneko zein kanpoko baliabideen bitartez.

Era berean, bereizitako bi laguntza-lerro biltzen ditu. Horiek eskuragarri daude Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean (ZTBES) sartutako agenteentzat:

- Alde batetik, 1,2 milioi eurorekin, osasunaren arloko ikerketa-jarduera dago, I+G proiektuen bidez osasun-sistemaren ahalmena sendotzen duena, baita horrek egiten duen ekarpena ere ezagutza sortu eta integratzeko, osasun-sistemaren eta gizartearen eskaerei hobeto erantzutearren.

- Bestetik, finantzaketa 2,8 milioi euro zabaltzen zaio lerroa dago, osasunaren arloko ikerketa estrategikoa bultzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-lidergotik eta ahalmen zientifiko-teknologikoetatik abiatuta sortutako I+G proiektuen bidez. Horiek ahalbidetzen dute produktu, prozesu edo zerbitzu berriak baliarazi eta garatzea.

**Presidencia**

## APROBADA LA CONVOCATORIA DE BECAS EN EL ÁMBITO DE COLECTIVIDADES Y CENTROS VASCOS EN EL EXTERIOR

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de 4 becas de especialización en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior.

Así, se convocarán 4 becas de 12 meses de duración. Las personas beneficiarias llevarán a cabo su actividad en las siguientes dependencias de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi:

- Dos en la Secretaría General de Acción Exterior, en Vitoria-Gasteiz.
- Una en la Delegación de Euskadi en Argentina-Mercosur.
- Una en la Delegación de Euskadi en Estados Unidos.

La dotación total de las 4 becas es de 80.000 euros, que se dividen del siguiente modo:

- Una dotación de 16.000 euros para cada una de las becas cuyo destino es Vitoria-Gasteiz.
- Una dotación 24.000 euros para cada una de las becas a desarrollar en las Delegaciones de Euskadi en Argentina-Mercosur y Estados Unidos respectivamente.

Las personas interesadas que cumplan los requisitos exigidos podrán solicitar, consultar y realizar todos los trámites del correspondiente procedimiento de selección utilizando medios presenciales o electrónicos.

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

# EL GOBIERNO VASCO E INNOBASQUE COMIENZAN LA SEGUNDA FASE DEL DESPLIGUE DEL *"LIBRO BLANCO DE DEMOCRACIA Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA PARA EUSKADI"*

- **Ambas instituciones firmarán un convenio de colaboración hasta 2020, para implementar los principales valores de la *Buena Gobernanza*: transparencia, participación ciudadana y publicidad activa**
- **El *"Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana para Euskadi"* es el primer libro blanco de estas características elaborado, íntegramente en colaboración con la ciudadanía, por una administración pública en Euskadi**

El Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, ha informado, hoy, al Consejo de Gobierno, de la próxima firma de un convenio de colaboración con la Agencia Vasca de Innovación, Innobasque, para llevar a cabo la segunda fase, hasta 2020, del despliegue del "*Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana para Euskadi*".

El Gobierno Vasco cree que Innobasque cuenta con el bagaje, la experiencia en materia de innovación social, y los medios materiales necesarios para abodar el reto de implementar los compromisos recogidos en el documento, y responder así, de una forma efectiva, a las demandas que la ciudadanía explicitó en el proceso de creación de este libro blanco.

El objetivo último del Gobierno con este trabajo es avanzar en su compromiso con los valores de la *Buena Gobernanza*: la transparencia, la participación ciudadana en la toma de decisiones, la publicidad activa, la rendición de cuentas, etc.

## CONVENIO DE COLABORACIÓN

Este convenio permitirá al Gobierno Vasco y a Innobasque colaborar estratégicamente y compartir espacios y equipos técnicos expertos en innovación pública y privada, para elaborar experiencias innovadoras en materia de participación ciudadana. Con su firma, ambos organismos se comprometerán a llevar a cabo las siguientes ocho líneas de trabajo:

1. **Desarrollar nuevos contenidos** para incorporar al "*Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana para Euskadi*".
2. **Sensibilizar y formar** al personal directivo y técnico del Gobierno en materia de participación ciudadana.
3. **Desarrollar herramientas que orienten** sobre el diseño y la puesta en marcha de los procesos de participación ciudadana.

4. **Promocionar experiencias innovadoras de participación**, que deberá desarrollar el Gobierno, través del asesoramiento y la evaluación de los procesos participativos ya desplegados.
5. **Promocionar experiencias innovadoras**, a través de iniciativas como los *"Premios Elkarlan".*
6. **Actualizar el documento de buenas prácticas**, que recoge todas las herramientas utilizables para poner en marcha estos procesos a nivel local.
7. **Implantar el modelo de evaluación** que permitirá comprobar el impacto de estos procesos de participación.
8. **Apoyar** al Gobierno en el proceso de participación ciudadana que se ha puesto en marcha para elaborar el *"Plan de Gobernanza e Innovación Pública 2020"*, e **impulsar redes** de difusión de buenas prácticas para compartirlas entre las instituciones vascas.

Una vez se firme el documento, una *"Comisión de Seguimiento"*, compuesta por dos personas representantes de cada una de las partes, garantizará el cumplimiento de los compromisos adquiridos para el desarrollo de estas ocho líneas de trabajo.

**LIBRO BLANCO**

El *"Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana para Euskadi"* es el primer libro blanco de estas características elaborado por una administración pública en Euskadi. Este documento se elaboró durante un año de trabajo en el que participaron 400 personas y 150 entidades de todo tipo: ayuntamientos, diputaciones, asociaciones de personas con discapacidad, de personas mayores, asociaciones culturales, universidades, colegios, ONGs, asociaciones de integración social,…

Este libro, se ha convertido en una herramienta para crear mecanismos permanentes de diálogo, negociación y acuerdo entre la Administración Pública Vasca y la ciudadanía para que ésta pueda tomar parte en las decisiones que le atañen directamente.

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

# EL GOBIERNO VASCO CREA LA AGENCIA VASCA DE INTERNACIONALIZACIÓN/BASQUE TRADE AND INVEST" PARA PRESTAR SERVICIOS DE MAYOR VALOR AÑADIDO A LAS EMPRESAS

- **AVI-Basque Trade Invest gestionará el conjunto de la política de internacionalización empresarial del Gobierno Vasco**
- **Promoverá la internacionalización de la economía y de las empresas vascas, así como a los agentes competentes en la atracción de inversiones extranjeras**
- **Esta estructura conecta mejor con los agentes internacionales con los que convive, gana eficiencia en el servicio a las empresas vascas y refuerza la marca basque country en el exterior**
- **Las oficinas comerciales de la Red Exterior de Spri dependerán de la nueva Agencia e incorporará una Unidad de Inteligecia Competitiva**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Decreto para la constitución de la Sociedad Pública Agencia Vasca de Internacionalización/Basque Trade and Investment, S.A.

El objetivo de esta Agencia es integrar y reforzar las capacidades y activos de internacionalización del Gobierno Vasco.

El Gobierno Vasco entiende que la creación de esta Entidad para la Internacionalización facilitará la transición hacia un modelo de servicios de valor añadido con la mejora de resultados de posicionamiento como país y en clave tanto empresarial como de atracción de inversiones.

Por lo que el objeto social de AVI/Basque Trade and Invest será promover la internacionalización de la economía y de las empresas vascas, dando soporte a las empresas en su proyección internacional, así como a los agentes competentes en la atracción de inversiones externas a la Comunidad Autónoma Vasca.

Tiene previsto desplegar una nueva cartera de servicios de valor añadido, segmentada para distintos perfiles de empresas en un modelo integral combinando capacidades propias y de agentes colaboradores.

**Red de Oficinas en el exterior**

Para el cumplimiento de sus fines, podrá disponer de una red de oficinas en el exterior, con la intención de incrementar la colaboración y aportación de la red al servicio de las empresas e instituciones vascas.

En la actualidad, la Red comercial exterior de Spri está constituida por 14 oficinas, y serán dependientes de esta nueva Agencia.

**Unidad de Inteligencia Competitiva**

La Agencia contará con una Unidad de Inteligencia Competitiva que generará conocimiento avanzado de los mercados abriendo nuevas oportunidades para las empresas. La UIC estudiará tendencias de mercados, detección y gestión de nuevas oportunidades, evaluará las políticas propias y explorará políticas ajenas, e impulsará la constitución de alianzas de conocimiento en el ámbito de la internacionalización en beneficio de la economía y empresa vascas.

**Capital Humano, Marca Basque Country y coordinación institucional**

En línea con las políticas mantenidas hasta el momento, AVI/BTI asumirá la gestión de los programas destinados a la formación de Capital Humano ofreciendo capacitación especializada en internacionalización de empresas

La Agencia trabajará para incrementar y extender el reconocimiento de Euskadi y sus empresas en el mundo, asociando el conjunto de la actividad de la Agencia Internacional a la marca Basque Country, y reforzará, asimismo, las misiones inversas de carácter económico y empresarial.

Será un agente clave en el Sistema Vasco de Internacionalización en permanente coordinación con las instituciones que conforman el Basque Consortium-Consejo Vasco de Internacionalización.

**Régimen de gestión de la Agencia AVI/BTI**

AVI/BTI, Sociedad Pública Agencia Vasca de Internacionalización / Basque Trade and Investment, SA se regirá por las disposiciones aplicables a las Sociedades Públicas y por lo dispuesto en la legislación de Sociedades de Capital.

Su actividad entrará en vigor el 1 de enero de 2018, integrando de manera paulatina, recursos humanos, técnicos y económicos de la Administración General de Euskadi y de la Sociedad para la Transformación Competitiva, Spri. Un proceso que se prevé finalizado para marzo de 2018.

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### AYUDAS POR MÁS DE 1,8 MILLONES PARA PROYECTOS DE LA ESTRATEGIA DE DESARROLLO LOCAL PARTICIPATIVO DEL SECTOR PESQUERO

- **Deben propiciar crecimiento económico, inclusión social, creación de empleo y movilidad laboral en las zonas costeras y en las de interior dependientes de la pesca y la acuicultura**

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan las ayudas destinadas a proyectos que se ejecuten al amparo de las Estrategias de Desarrollo Local Participativo aprobadas por el ejecutivo autónomo al Grupo de Acción Local Itsas Garapen Elkartea. Se financiarán proyectos que busquen el crecimiento económico, la inclusión social, la creación de empleo y la movilidad laboral en las comunidades costeras y en las comunidades de interior dependientes de la pesca y la acuicultura.

Durante el ejercicio 2017 se destina a financiar este programa de ayudas un total de 1.835.000,00 euros. De dichos fondos, 1.559.750 euros corresponden al Fondo Europeo Marítimo y de Pesca (FEMP), y 275.250 euros corresponden a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo, 335.000,00 euros son créditos de pago del ejercicio 2017 y 1.500.000,00 euros son crédito de compromiso para el ejercicio 2018.

**<u>Líneas de ayuda</u>**

Las líneas de ayuda y su distribución entre anualidades serán:

| Línea de ayudas | 2017 (€) | 2018 (€) | Total (€) |
|---|---|---|---|
| Ayudas para inversiones productivas | 236.500 | 1.263.500 | 1.500.000 |
| Ayudas para la creación de empleo | 67.500 | 67.500 | 135.000 |
| Ayudas para inversiones no productivas | 31.000 | 169.000 | 200.000 |
| Total | 335.000 | 1.500.000 | 1.835.000 |

**<u>Beneficiarios</u>**

<u>Para los proyectos de inversión productiva</u> podrán resultar beneficiarias las personas físicas o jurídicas privadas, con o sin personalidad jurídica. Las personas jurídicas deberán ser micro, pequeñas y medianas empresas.

Para los proyectos de creación de empleo podrán ser beneficiarias las micro, pequeñas y medianas empresas y las personas físicas que vayan a adquirir la condición de empresa.

Para los proyectos de inversión no productiva podrán ser beneficiarios agentes sectoriales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tales como cofradías de pescadores, asociaciones profesionales del sector pesquero, organizaciones de productores, entidades sin ánimo de lucro integradas sólo por cofradías de pescadores y/o asociaciones del sector pesquero, y grupos de Acción Local Pesquero. También las personas físicas o jurídicas con o sin ánimo de lucro, que tengan entre sus objetivos fomentar las actividades náuticas, promocionar los productos pesqueros del territorio, fomentar el medio ambiente marino y costero, o promover el patrimonio cultural marítimo pesquero.

El plazo de presentación de las solicitudes será de quince días a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. La documentación hay que presentarla en los locales del Grupo de Acción Local Pesquero “Itsas Garapen Elkartea” con sede en Granja Modelo s/n, 01192 Arkaute, Vitoria-Gasteiz

## Hacienda y Economía

**EL GOBIERNO NOMBRA A BEGOÑA ARROITAJAUREGI JAIO TITULAR DEL ÓRGANO ADMINISTRATIVO DE RECURSOS CONTRACTUALES DE LA COMUNIDAD ATÓNOMA DE EUSKADI**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Decreto por el que se nombra titular del órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi a Dña. Begoña Arroitajauregi Jaio y así como sustituto a D. Francisco Javier Elola del Río, una vez concluido el periodo de 6 años para el que fue nombrado el titular anterior.

La designación se ha realizado mediante decreto aprobado en el Consejo de Gobierno a propuesta conjunta y motivada de los titulares de los Departamentos de Hacienda y Economía y Justicia y Administración Pública.

El OARC surge con la vocación de atender la totalidad de los recursos especiales en materia de contratación, reclamaciones y las cuestiones de nulidad que se interpongan en contratos de su competencia emanados por poderes adjudicadores, tengan o no la consideración de administraciones públicas, integrados en los sectores públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las Administraciones Locales de su territorio, a excepción de las tres Diputaciones Forales, lo que permite establecer criterios únicos y homogéneos en materia de contratación pública para todos los poderes adjudicadores señalados.

El Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la CAE, creado en 2011, es un órgano especializado que actúa con plena independencia funcional en el ejercicio de sus competencias y que ejerce sus funciones con plena independencia y se adscribe, sin integrarse en la estructura jerárquica de la Administración, al departamento competente en materia de contratación pública.

El órgano ejercita su función con objetividad e imparcialidad, sin sujeción a vínculo jerárquico alguno ni instrucciones de ninguna clase de los órganos de las administraciones públicas afectadas.

El Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi se ha creado inicialmente con el carácter de unipersonal si bien se prevé su transformación en órgano colegiado mediante disposición reglamentaria.

## Hacienda y Economía

### EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA EL ALQUILER DEL EDIFICIO SITO EN EL NÚMERO 1 DE LA CALLE JOSE MARÍA OLABARRI DE BILBAO

El Consejo de Gobierno ha autorizado el alquiler directo a la Sociedad Rectora de la Bolsa de Valores de Bilbao del inmueble situado en el número 1 de la Calle Jose María Olabarri de Bilbao. Este edificio fue adquirido por la CAE en el año 1989 y ha sido sede la Sociedad Rectora de la Bolsa de Valores de Bilbao desde 1991.

Dada la función de servicio público que cumple la Bolsa de Bilbao, la peculiaridad del bien y la singularidad de la operación, se ha optado por la adjudicación directa del alquiler, razón por la cual es el Consejo de Gobierno quien tiene que autorizar esta operación.

En cuanto a las condiciones del arrendamiento, se arrenda todo el edificio, junto con su mobiliario, a excepción de la planta 4ª, por un importe de 84.493,70€ más IVA /año y el periodo inicial de 5 años y posibles prórrogas hasta alcanzar el periodo total de 10 años.

### INICIADO EL PROCESO PARA LA VENTA DEL EDIFICIO PRIM 10 DE DONOSTIA

El Gobierno Vasco ha aprobado el expediente de enajenación, mediante subasta pública, del edificio sito en el número 10 de la Calle Prim de San Sebastián. Esta enajenación fue autorizada por el Parlamento Vasco mediante acuerdo de 28 de junio de 2017 de la Comisión de Hacienda y Presupuestos al tratarse de un bien cuyo valor excede de los 3 millones de euros.

El tipo de licitación o precio base que se ha fijado para la subasta es de 7.006.955,00€, importe que se deberá mejorar al alza. En los pliegos aprobados se establece un plazo de presentación de ofertas hasta el día 5 de diciembre de 2017 y la apertura de las proposiciones tendrá lugar el día 21 de diciembre de 2017.

La propiedad de este edificio proviene de la liquidación de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana, y lleva en desuso desde 2011, por lo que es un gasto innecesario para el Gobierno.

## Educación

**6 MILLONES DE EUROS EN SUBVENCIONES A LOS AYUNTAMIENTOS PARA MEJORAS EN CENTROS EDUCATIVOS (UDALAGUNTZA-2017)**

- **La convocatoria Udalaguntza subvencionó el pasado año 298 obras a realizar en 167 centros educativos ubicados en edificios de titularidad municipal**

El Consejo de Gobierno en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, ha aprobado *la* Orden por la que se convocan ayudas para la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa. Esta convocatoria, conocida con el nombre Udalaguntza-2017, cuenta con un importe global de 6.000.000 euros.

Podrán acogerse a la convocatoria Udalaguntza-2017 aquellos ayuntamientos de Euskadi que presenten sus proyectos de obras de mejora en centros docentes de las características anteriormente citadas. Las obras susceptibles de ser financiadas a través de la convocatoria Udalaguntza 2017 han de haberse iniciado entre el 1 de enero de 2017 y el 31 de agosto de 2018 y deben estar finalizadas antes del 31 de diciembre de 2018.

La subvención del Departamento de Educación cubrirá el 60% del presupuesto de aquellas obras aprobadas por la comisión de valoración, con un importe máximo no superior a 360.000 euros por cada solicitud. Por tanto, a aquellas solicitudes cuyo presupuesto a probado por la comisión de valoración sea superior a 600.000 euros, se les reconocerá la ayuda teniendo en cuenta esa limitación.

### Obras de accesibilidad

Se trata, en numerosas ocasiones, de obras de mejora de la accesibilidad a los edificios educativos, o incluso de actualización y adecuación de sus instalaciones, tales como: sustituciones de la carpintería interior o exterior; reformas de fachada; pavimentación de patios y zonas de recreo; actuaciones para la mejora de la eficiencia energética; redistribución de espacios; renovación de cubiertas; actualización de instalaciones eléctricas; reparación de aseos y saneamientos; o reforma de instalación de calefacción, entre muchos otras actuaciones, que contribuyen de manera muy directa a la mejora de la calidad de la enseñanza.

La convocatoria Udalaguntza nace de la coordinación entre el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y las corporaciones locales en las actuaciones de mejora y actualización de las instalaciones educativas de titularidad municipal. Esta cooperación permite, además, la optimización de los recursos

públicos y la rentabilización al máximo de los esfuerzos y actuaciones realizadas por cada administración.
Los ayuntamientos de Euskadi que deseen acogerse a la convocatoria Udalaguntza 2017 tendrán un plazo de un mes para presentar sus proyectos, junto con la documentación requerida, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOPV.

La convocatoria Udalaguntza del pasado año (Udalaguntza 2016) subvencionó un total de 298 obras a realizar en 167 centros públicos de Infantil y Primaria, ubicados en 99 municipios de Euskadi.

## Educación

## 350.000 EUROS PARA PROGRAMAS ESPECÍFICOS DE APOYO A LA DIVERSIDAD EN CENTROS DE ENSEÑANZA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, una Orden que convoca subvenciones de carácter extraordinario para el desarrollo de programas específicos de apoyo a la diversidad en los centros de enseñanza durante el curso 2017-2018. Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 350.000 euros.

El objetivo de esta convocatoria es la de subvencionar las actividades realizadas para confeccionar, dirigir y gestionar programas específicos de apoyo que contengan medidas dirigidas a dar respuesta a la diversidad cultural del alumnado del centro educativo. Dentro de estas actividades subvencionables, tienen cabida tanto las dirigidas a la formación del profesorado, como las actividades a desarrollar con el alumnado (puesta en práctica de metodologías y estrategias de enseñanza-aprendizaje inclusivas, acciones ligadas al plan de acción tutorial, acciones de acogida del alumnado de origen extranjero o acciones del profesorado de refuerzo lingüístico).

El importe económico destinado a esta convocatoria se desglosa de la siguiente manera: 200.000 euros para Educación Infantil y Primaria, y 150.000 euros para la Educación Secundaria Obligartoria y Formación Profesional Básica.

Esta convocatoria complementa a otras ya en vigor con el objetivo de dar respuesta a la diversidad, como son: los Programas de dinamización intercultural, Programas de refuerzo lingüístico, Proyectos de Refuerzo Educativo Específico –PREE–, y Programas de mejora del aprendizaje y el rendimiento mediante la Diversificación curricular.

## Salud

### El GOBIERNO VASCO INCREMENTA EN MÁS DE UN 50% LAS AYUDAS A PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN EN SALUD PARA 2017

El Consejero de Salud, Jon Darpón, ha informado hoy al Consejo de Gobierno del incremento en 1,4 millones de euros las ayudas destinas por el Gobierno Vasco a financiar proyectos de investigación y desarrollo en salud para 2017. Así, este año, la cuantía de estas ayudas, enmarcadas en la Estrategia de Investigación e Innovación en Salud 2020, además de en el Plan de Ciencia y Tecnología 2020 y la Estrategia de Especialización Inteligente RIS3 Euskadi, asciende a 4 millones de euros.

La convocatoria, cuyos recursos económicos ahora se amplían, corresponde a la Orden de 20 de junio de 2017, publicada en el BOPV , de 13 de julio, que regula la financiación de los proyectos de investigación en salud cuya dotación ascendía a 2,6 millones de euros.

La financiación a proyectos de investigación en salud, tiene dos objetivos prioritarios: aumentar el impacto de las actividades de I+D+i orientadas a la mejora de la salud de la ciudadanía y la contribución a la generación de riqueza; y mejorar la financiación de la investigación e innovación en salud, con recursos tanto internos como externos.

Así mismo, integra dos líneas de apoyo diferenciada a la que pueden acceder los agentes integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI):

- Por una parte, con 1.2 millones de euros, la promoción de la actividad investigadora sanitaria a través de proyectos de I+D que refuercen la capacidad del sistema sanitario y su contribución a la generación e integración de conocimiento, para satisfacer mejor las demandas del sistema sanitario y de la sociedad,

- Por otra, la línea cuya financiación se amplía, con 2,8 millones de euros, la potenciación de la investigación en salud de carácter estratégico, a través de proyectos de I+D surgidos a partir del liderazgo sanitario y del aprovechamiento de las capacidades científico-tecnológicas de Euskadi, que permiten avanzar en la valorización y desarrollo de nuevos productos, procesos o servicios.